

Gaurko ezker porrokatuaren heraldoak: Sarrionandia eta Azurmendi behelaino artean

Ignazio Aiestaran Uriz

UPV/EHUko Filosofia Saileko irakaslea eta idazlea

«Perfekzionatzea azkenik gabekoa baldin bada, inperfekzioa ere azkenik gabekoa da». Esaldi horrekin, Joxe Azurmendik bere inperfekzioaren filosofia defendatu zuen *Gizaberearen bakeak eta gerrak* idazlanean (Azurmendi 1991: 31). Nire artikulua inperfektua izango da ezbaierik gabe, baina omenaldi bat izan dadin asmoa daukat, belaunaldi batean edo bitan Joseba Sarrionandia eta Joxe Azurmendi bezalako sortzaile mireagarriak irakurriko ez direlakoan. Biok nabarmendu dira egungo dinamika sozialak aztertu dituzten adituen artean. Gaurko gizarte liberaletan kapitalak inposaturiko nagusitasuna aztertzeke tresnak eman dizkigute, ezker porrokatua agerian utziz. Bion artean loturak eta eztabaida izan arren, beraien estrategiak ezberdinak dira. Zenbait puntutan bat etortzen dira, beste zenbaitetan ez. Artikulu honetan Sarrionandiaren eta Azurmendiren ekarpenak arakatuko dira. Sarrionandiak 2015ean *Lapur banden etika ala politika* liburu bihurtutako hitzaldi bat eman zuen, *Moroak gara behelaino artean?* idatzi ondoren. Urte berean, *Hizkuntza, nazioa, estatua* liburu bilakatutako hitzaldia eman zuen Azurmendik, *Historia, arraza, nazioa* izkiriatu ostean. Egungo ezkerren krisialdiari atxikitako zenbait ondorio sortuko da, halako ildo gurutzatuari erreparatzen badiogu.

Lapur banden etika edo politika (neo)liberala

Filosofia politiko modernoa, Sarrionandiaren arabera, hamazazpigarren mendean deskubritu zen kontzeptu batekin abiatu zen (Sarrionandia 2015: 64). Ordua arte, erlijioagatik, amodioagatik edo harrokeriagatik hiltzen omen zuten elkar. Orduan, filosofia burgesak munduko pasio berria deskubritu zuen: ‘interesa’. Dendarien interesa egoista edo berekoia hartu zuen ikurtzat Aro Moderno europarrak. Dendarien eta merkatarien gaineko eredutik eraiki zen filosofia politiko modernoa. Interes ekonomikoa izan zen gako berria, kapitalismo jaioberriaren menpean gizartea demokratizatuko zuena. Lortutako emaitzak, ordea, ez zuen oreka sozialik ekarri. Sarrionandiaren berbetan:

Hala onartu zuen Ilustrazioak ‘interesa’ filosofia sozioekonomikoaren oinarri legez, ‘interesaren oreka’ imajinatuz, interesa bakearen garantia izango zelakoan eta, batzuk aberasten eta besteak

pobretzen zirela ikusita ere, denborarekin mundu guztia burgestuko zela kalkulatu, beharbada. Ikuspegi idiliko hori laster zapuztu zen, kapitalisten diru egarria ez baitzen dendari umilaren izarikoa, baizik neurritz gainekoa. (*Ibid.*: 64)

Sarrionandiaren genealogia historikoari jarraiki, hamazazpigarren mendean, interesek eragindako liberalismoa dela medio, inperioak eta esklabotza hedatu ziren munduan barrena. Hemeretzigarren mendean, fabrika ‘langilejaleak’ eta ‘kontsumo-ondasungileak’ zabaldu ziren Europan bertan. Hogeigarren mendean gauza bera, baina fabrika, kontsumo eta gerra gehiagorekin. Hogeita batgarren mendean hasieran, atzoko dendarien eta merkatarien interesak gaurko oligarkia finantzario eta industrial handien ‘interes’ neurrigabe eta gupidagabeen zerbitzura geratu dira (*ibid.*: 64-65). Adam Smithen merkatuaren ‘esku ikusezin’ erraldoiak itotzen gaitu egun (aspalditik Karl Marxek Smithen filosofia merkantilista burgestua gaitzetsi zuen: «gizartea, dio Adam Smithek, merkataritza-enpresa bat da; horko kide bakoitza merkantzia da» (Marx 2004: 103). Esku horrek politika klasikoa ere suntsitu du. Interesen megamakinaren erabakiak ez daude ja ez dendarien, ez herrien eskuetan. Erabaki garrantzitsuenak korporazio handien eta botere finantzarioen esku ikusezinak hartzen ditu. Politikarien lana erabaki horiek kudeatu eta herritarrak kontrolatzea da (Sarrionandia 2015: 66). Halako funtzionamendua lapur banden etika da egungo demokrazia liberaletan. Etika kapitalista eta demokratiko liberal horretatik lapur txikia arbuiagarri eta txarra da, lapur erraldoia errespetagarri eta ona da. Sarrionandiak Txirrita bertsolariaren hitzez argitzen du (*ibid.*):

Lapur txikiyak kastigatzeko
non-nai badago kartzela;
aundiak or ikusten ditut
pasean dabiltzala...

Lapur banden etika klasiko bat izan da historia politiko unibertsalean. *Moroak gara behelaino artean?* lanean Agustin Hiponakoaren adibidea dugu, non pirata txikia lapurtzat hartzen duten, enperadorearen itsaslapurreta goresten den bitartean.

San Agustin Hiponakoak *De civitate Dei* liburuan kontatu zuen etsenplu ezaguna ilustrazio ona da estatuaren oinarriez ohartzeko. Alexandro Handiaren armadak itsas lapur bat harrapatu eta gatibatu omen zuen.

«Nola izan duzu itsaso guztia hain aztoraturik?» galdetu omen zion gero Alexandro Handiak pirata gatibatuari.

Honek, harro eta deus isildu beharrik gabe, erantzun omen zuen: «Eta zuk? Mundu osoa duzu aztoraturik. Gure arteko aldea da ni itsasontzi txiki batekin ibili naizela, eta hagatik deitzen didate lapurra. Zuri, antzeko gauzak mila itsasontzirekin eta armada izugarri handi horrekin zabiltzalako deitzen dizute enperadore». (Sarrionandia 2010: 645)

Lapur banden etika klasikoa modernizatu da, kapitalismoa dela bide, merkatu esku ikusezinari esker, gaurko neoliberalismo autoritariora heldu arte (ikus Sarrionandia 2019: 35-36). Neurririk gabeko makineria inposatu da politikan gerra amaigabe batean:

Kapitalismo parlamentarioa elite baten komenentzian antolaturiko sistema da, lapur bandaren jardun eta etikarekin, gehiengoaren kontra. Gerra amaituko zela pentsatzen zen, burgesiarekin, haren ‘dendari interesekin’, baina gerra zabaldu besterik ez da egiten. Gerra kapitalismoarekin zabaldu eta mantendu da beti, estatutik kanpora ahal dela, baina barruan ere bai. (Sarrionandia 2015: 96)

Sarrionandiaren aburuz, lapur banda erraldoi horiek duten ahalmen ekonomiko, teknologiko eta militarra areagotu da oposizio eskasarekin:

Alternatiba komunista agortu ondoren, bigundu beharrean, gogortu egin da. Aukera komunista zegoen bitartean, oligarkiak ongizate minimo bat eskaini behar izan zion bere langileriari. Berlingo Harresia erori zenetik ja ez da inor kontentatu beharrik. Pobreen kontrako gerra lokal eta unibertsal bat dago, klase borroka deitu dena liburuetan, baina ez da ez liburuetakoa gauza, ez iraganekoa. (*Ibid.*: 96)

Azken urteotan, kapitalaren lapur banden etikaren eta politikaren aurrean zenbait mugimendu eta korrante politiko aldarrikatzaile abiatu dira munduko plazetan eta hiriburuetan, emaitza ezberdinekin. Alta, hogeita batgarren mendearen hasiera honetan ez dira nahikoa izan kapitalaren aldrari aurre egiteko. Hona hemen nola laburbildu dituen Sarrionandiak prozesu politiko hori eta horren amaiera:

Herri mugimendu gehienek, protestaren aitzakia konkretuaz aparte, sistema guztia salatzen zuten eraren batean, eta hiri erdiko plaza zabal bat aukeratzen zuten biltzeko: *Tahrir* Kairon, *Syntagma* Atenasen, *Wall Street* okupatzea izan da New Yorkeko eslogana, oligarkia finantzarioak jendeari ostutako plazaren metafora.

Udaberri arabiarra negu gorri bihurtu da ja, urte gutxian. Kontrairaultza begi bistakoa da arabiar estatu guztietan, eta, kontrairaultza nagusitu ez den lekuetan, Estatu Batuei eta Europari esker, hondamendia ezarri da. [...].

Mendebaldean, botere poliziakoa askozaz trinkoagoa da, kontu gehiago izaten da errepresio odoltsuarekin. Eta protesta mugimenduek iritzi publikoaren konkista dute, batez ere, xedetzat. Syriza, Podemos, Bildu eta enparauen estrategia da, hitz gutxitan esanda, iritzi publikoaren alorrean irabazi ondoren, hauteskundeetan garaipena lortzea, botere instituzionalez jabetzea eta, instituzioetan, kapitalismo parlamentarioa funtsean aldatu gabe, politika sozialdemokrata bat bultzatzea, herriko jendearen mesedetan. (*Ibid.*: 93)

Ezkerreko politika berria ez da nahikoa izan, ez plazetan, ez alderdian. Sozialdemokrazia, zaharra zein berria, modernoa zein postmodernoa, ez da gauza izan kapitalismo parlamentarioari buru egiteko, ezta lapur banden tramankulua gainditzeko ere. Berrero, Sarrionandiaren eleak:

Syriza, Podemos, Bildu, nire ustez, gauza bera dira, erreferentzia nazionalaz aparte. Igual baten bati ez zaio gustatuko batera ipintzea, baina, nire ustez, ezkerreko mugimendu horiek intentzio bera dute, baldintza, muga eta zirkunstantzia antzekoekin. Konturatuko zineten hitzaldian zehar kidekotzat hartzen ditudala askatasun pertsonal eta kolektiboaren aldeko gutasunak. Gay mugimendua edo etxea izateko eskubidearen aldekoa antzekoak dira, nire ustez: ‘autodeterminazioaren’ aldekoak, funtsean, jendearen askatasuna eragozten duten botereen kontrakoak. Nire ustez, Syriza, Podemos, Bildu eta halako mugimendu guztietan badago injustizia orokorraren kontzientzia bat, eta badago gogo iraultzaile bat. Badago kapitalismoaren kritika sakona, eta bizimodua ere aldatu behar delako sentimendua, hau da, zibilizazio mudantza baten aldeko gogoia. Baina ez dago horretarako ez estrategiarik, ez pedagogiarik, ez dago baldintza

objektiborik ez subjektiborik. Nik behintzat ez dut ikusten imajinario kolektiborik horretarako. (*Ibid.*: 94)

Helburu politikoak guztiz abandonatuta edo, behintzat, beste une hobe baterako utzirik daudelakoan, Sarrionandiak galdera kritikoak adieraziko ditu:

Zer da Alderdi Nazionalistaren ‘independentzia’? Zer da Alderdi Sozialistaren ‘sozialismoa’? Zer dira gure ‘independentzia eta sozialismoa’, adierazle hustuak baizik? Adierazirik edo, behintzat, praxi bideragarriak gabekoak. (*Ibid.*: 59)

Hemen eta orain ez da gehiegi aurreratu, iraganari so egiten badiogu. *Hitzen ondoeza* idazlanean kapitalismoaren eta aberriaren gaineko bi gogoeta interesgarri dauzkagu, alegia. Kapitalismoari dagokionez: «Lehen antikapitalista ginen, orain apur bat deskapitalista izatearekin konformatzen» gara (Sarrionandia 1997: 50. sarrera). Eta aberriari dagokionez:

‘Aberri’ hitza berria da euskaraz. Zulo bat tapatzeko erabiltzen da. Badirudi, lehenagoko euskaldunek bazutela ‘herria’ eta ez zutela aberri beharrik. Herria galdu arte ez zuten, euskaldunok, aberria asmatu beharrik izan. Gauza hori dela eta, badira euskaldunok lotsa apur batekin esaten ditugun hitzak: aberria, Euzkadi... (*Ibid.*: 2. sarrera)

Labur esanda: kapitalak herria desitxuratu eta desegin du, antikapitalismoa eta aberria aho batez aipatu arren.

Hegemoniaren inperatibo kategorikoak

Sarrionandiak deskribaturiko ezker europarraren porrotak Azurmendiren azterketarekin korrelazioa dauka, batik bat, azken horrek joko demokratiko liberalean «hegemoniaren inperatibo kategorikoak» edesten dituenean. Honakoak dira inperatibo demokratiko horiek bere esaldi zehatz eta zuzenetan:

Orain politika demokratikoaren arauetara bigundu gura bada, ordezkaritza eta bozketa sistemara batik bat, horren mekanikara makurtu beharra dago. Urrutiko helmuga izan liteke burujabetasuna, baina hartarako estreina tresnak behar dira; tresnak lortzeko (demokratikoak), bozak irabazi behar dituzu; bozak irabaztea izan behar da jomuga hurbila, ordezkari ahalik gehienak sartzeko Udaletan, Diputazioan, Jaurlaritzan (erakundeok independentziarako bidean baliatzeko, suposatzen da); ahalik gehienei interesatuko zaien programa atonduko da; kanpainetan adituen esanera jarri behar da eta haien gomendioko diskurtsoa paratu; seguru asko ez da oso nazionalista izango (Aberri Egunetarako erresalbatuko da hori), eta diskurtso horretan euskara ez da aipatuko... «Elementary, my dear Watson». Politika demokratikoak bere inperatibo kategorikoak ditu.

Ez da ezer berria. EAJ/PNVk beti hala jokatu duela esango nuke, eta Alderdiari ez zaio gaizki joan. Nola doakio independentziari? [...] Berlingo harresia erori zenetik, ezkerrean Iraultzaren abangoardia monolitikoaren tokian subjektuen pluralismoa eta bakoitzaren autonomia bedekatzeko da (euskararen borroka, independentismo iraultzailea, gatazka sindikalak, feminismoa, ekologia, AHTaren edo zaborren gerrak, errauste-plantaren zaputza, etc.), herri borroka guztiok ortzadar batean biltzeko ideian. (Azurmendi 2017: 96-97)

Ortzadarraren estrategia politikoak ez du batasunik lortu, ezta indarririk ere, lapur banden kapitalaren aurrean. Horregatik, demokrazia liberalaren eskarmentutik bi ondorio aterako ditu Azurmendik:

Bat: mugimendu horiek denek euren egitasmoak eta jokamoldeak dituzte: horien suma edo ordezkariak soila izatera mugatzen bada, bere-bere proiektu nagusi bat gabe gizartearentzat eta Euskadirentzat orokorra, ataza partzial horietan diluitua geratzen da ezkerria. Eta, bi: bozkatze sisteman, gutxiengo militanteon batuketak ez du gehiengoa ematen, zentro sozial nabarra militanteongana erakartzen ez bada. Bozkatzailego zabala irabazteko EAJ/PNVren taktika arrakastatsuekin lehiatzeko proposamena al da 'independentismo ez-abertzalearen' planteamendua? (*Ibid.*: 97)

Azurmendik azaltzen digu nola diluitzen den egungo ezkerria (arazoa ez da bakarrik euskaldunen artean jazotzen; fenomeno zabalagoa da). Kapitalari aurre egiten ez dion ezker berriaren epifenomenoa dela esan genezake. Izan ere, ortzadarraren estrategia politikoak dela kausa, ezker berriaren populismo postmodernoa kritikatzera helduko da Azurmendi, modako korrante hori aniztasunaren idealismo platonikoa baizik ez delako:

Irakurria duzue egunotan: «Euskarak ez gaitu euskaldun egiten, baginak emakume egiten ez gaituen bezala. Subalternitateak egiten gaitu euskaldun, batetik, eta emakume, bestetik» (Jule Goikoetxea: *Berria*, 2015-06-10). Testuak probokatzailerak izan gura du, ez da dudarik. Baina probokazioak, oso ondo idatzita gainera, zakurra lozorrotik iratzartzeko balio badu, hozka egitera animatzeko arriskua ere badu. Zer, esentziak hainbeste erdeinatu eta gero, subalternitatea da orain esentzia platonikoa berria [...]. Subalternitateak 'egiten' bagaitu euskaldun eta 'egiten' bagaitu emakume, euskaldun denok emakumeak ote gara? Erraz jaus gaitetzke holako bizantinismo zentzu handirik gabekoetan. (*Ibid.*: 59)

Azurmendiren kritikan, materialismorik gabeko bizantinismo postmodernoa horrek ez du deus zedarritzen, eta ez du mesederik egiten, ez arlo sozialean, ez eremu politikoan:

Subalterno psikologikoa, subalterno sozial-ekonomikoa, politikoa, subalternoak era askotakoak daude, subalternitateak moduak eta moduak dauzka. (*Ibid.*: 60)

Gaurko euskaldunaren egoera sozial-politiko eta kulturalki anbigua da. Ezaugarritzen gaituena anbiguetate eta kontraesan artean moldatu beharra dela esango nuke. Euskaldun batzuk kapitalistak dira, beste euskaldun batzuk eta ez-euskaldun batzuk ustiatzen dituzte. Subalternoa naiz («kolonizatua» esaten zen gure garaian), baina subalternoa *tout court* ez. (*Ibid.*: 62)

Askotan populismo postmodernoa Antonio Gramsciren hegemoniaren teoria erabili du irakurketa hutsal batetik. Hortik jaio da subalternitatearen aniztasunaren berriketa, kapitalismoaren dinamika aintzat hartu barik. Halako korrontearen joeraren aurka jotzen du Azurmendik itzulgingururik gabe:

Gramsciren subalternoak Mezzogiornoko erreterro eta laborari txikerrak ziren, ekonomiko-laboralki ustiatuak eta espiritualki 'herriaren opioaz' alienatuak eta etsiaraziak. Gu ez gara hori, ez gara Asia Ekialdeko edo Hego Amerikako masa amorfo desanparatuak. Sozial-ekonomikoki, politikoki, kulturalki, eskola, elikagai eta osasunbide aldetik, pribilegiatuak gara modu askotan.

Hemen eserita gauden denok antikapitalistak gara noski, eta horregatik bankuan kreditua eskatu eta etxebizitza erosten dugu, edo gurasoen ekonomiatik bizi gara, lantoki kapitalista batean jasotzen dugu soldata (edo funtzionarioak gara, eta horrela beti geu iraultzailerik amorgaitzenak), zergak txintxo-txintxo ordaintzen ditugu, autoa daukagu eta gasolina ez da etxeko iturrikoa, hurrekin zinemara edo pizsinara goaz eta ordaindu egiten dugu sarrera, oporretara joateke ez gara geratzen (hegazkinean segur aski), edozein katarrok animatzen gaitu industria farmazeutikoari laguntzera, Bangladeshen jositako arropa daramagu soinean, Hirugarren Munduko produktu amerikarrak maite ditugu, ezin gara bizi aparailutxo tekniko modernoenez inguratuak ez bada (zenbat sakelako telefono eta trepetatxo dago sala honetan?)... Hau da, egunaren hogeita lau orduak kapitalismo internazionala bermatzen ematen dugu geure jardunean. (*Ibid.*: 60-61)

Bat nator Azurmendirekin subalternitate postmodernoa eta aniztasunaren populismoa desegiten dituenean. Izan ere, Sophie Bessis historialari eta ikerlariak azaldu du nola igaro garen printzipio modernoan unibertsaltasunetik interes postmodernoen mundializaziora (ikus Bessisen hitzaldia San Telmo Museoa: Bessis 2017): eta hor 'interesak' esanez, identitate interesak dira, baita interes ekonomiko neoliberalak ere. Haatik, ez nago ados eguna kapitalismoa bermatzen ematen dugula Azurmendik baieztatzen duenean. Bai, guztiok kapitalismoan bizi gara, baina ez klase sozial berean. Denok sakelako telefonoa daukagu. Alta, guztiok ez gara Euskaltel edo Movistar bezalako korporazioen akziodunak edo nagusiak. Enpresa, bulego eta industria kapitalistetan egiten dugu lan; hala ere, guztiok ez gara ugazabak, ezta patrioiak ere. Banketxean kreditua eskatzen dugu, etxerik ez daukagulako, Kutxabank edo Santander bezalako entitate finantzarioei bizi guztirako zorra ordainduz. Hori etxea galtzen dutenak ez aipatzearren. Administraritzan ere gehienak ez dira goiko funtzionarioak, ezta kargu gorenak eta aholkulari bereziak ere. Eta emakume langileek garbitzen dituzte eraikin publikoak eta parlamentuak soldata eskasarekin. Guztiok ez gara hegazkinez eta Abiadura Handiko Trenaz astero bidaiatzen, exekutibo eta enpresaburuek egiten duten moduan. Guztiok, euskaldunok eta ez-euskaldunok, ez daukagu automobilik, garraio publikoa erabiliz. Horrez gain, batzuek bizpahiru automobil dauzkate, eta horietako batzuek gidari pribatua ere bai. Halaber, kontinente honetan guztiok ez gaude ados Europako Banku Zentralarekin, ezta Europar Batasunaren inperialismoarekin ere, Estatu Batuekin batera Sirian, Venezuelan, Kuban, Yemenen, Bolivian edo Txilen kapital handiak bere estrategia atlantikoa inposatu gura duenean. Beraz, guztiok ez gara kapitalistak neurri berean, ez gara klase berekoak. Denok ez gara produkzio-baliabideen eta finantza-baliabideen jabeak ere.

Hegemoniaren inperatiboak aztertu nahi baditugu, halako dinamika mahaigaineratu behar ditugu. Herria, nazioa eta aberria prisma materialista horretatik galbahetu behar ditugu, batik bat estatu kapitalisten politikan. Eta ez da nire burutazioa. Azurmendik esan digu nazioa prepolitikoa dela, erabaki bat dela («Nazioa ez da berez politikoa, baina politika beti inplikatzeko eta konplikatzeko duen errealitatea bai»; «identitate nazionala prepolitikoa da», dio Azurmendik (2017: 89)). Politikan gehiago sartu eta erabili behar dugu; bestela, dilema bat eratortzen da, Azurmendik argitan eratu duena:

Ematen du dilema baten aurrean geundekeela: ala idealaren politika ala interes materialen politika; independentismo politikoki abertzale/euskaltzalea, ala interes ekonomiko eta sozialen independentismo soziala, politikoki neutrala. (*Ibid.*: 102)

Nire ustez, dilema horri erantzuna eman dio Azurmendik berak beste leku batean. Denok dakigu Espainian liberalismoaren ideologia nagusi dela. Sozialdemokratak, kontserbadoreak, aurrerakoi progreak, postfrankistak, kapitalistak, demokratak, katolikoak, intelektualak, guztiak eroso daude liberalismo apur batekin, edo liberalismo osoarekin. Espainian ez dago ez kapitalistarik, ez nazionalistarik. Denak liberalak dira, kristau liberalak, sozioliberalak, demoliberalak, progre liberalak, neoliberalak, liberal liberalak. Zer ezkututzen da liberalismo espainolaren atzean? Zergatik aipatzen da hainbeste liberalismoa erosotasun osoz? Zein da horren garrantzia Espainiako Erreinuaren? Badago pasarte bat, non Azurmendik liberalismo horren genealogia Espainiako Erresumaren Trantsizioan kokatu duen:

Trantsizioaren mitologia guztia ‘bi Espainien’ gaidipenak obeditua egon da eta halaxe segitzen du. Kritikatu egingo al dugu? Ez derrigor. Baina trantsizio bat, definizioz, eternizatu ere ez litzateke egin behar. Sekula ez da Espainia bata batago izan. Faxista eta faxistakumerik ez dago, ez dago frankista eta gorririk, ez dago bi Espainiarik; denok bat gara, denok demokratak eta liberalak (salbu nazionalista periferikoak, noski). Ahazturaz eta remakez, memoriak zein ideologiak, denak nahastu eta berdindu dira. Atzoko sozialista gorriak orain liberal zuriak dira [...]. Komunista batzuk eta anarkistak eskeman ez baitira erosoegi sartzen, horiek hobe da marjinalak deklaratu. Espainia bat, pentsamendu bat. Zapaterok Espainia liberal bat aldarrikatzen du. Aznarrek liberala aitortzen du bere burua, eta Esperanza Aguirrek. Liberala besterik ez dago orain. (Azurmendi 2018: 89)

Nahiz eta 2006ko testua izan, Azurmendik deskribatu diguna ez da atzokoa, eta erraz egunera daiteke, izenen bat edo abizenen bat aldatuz zein gehituz (izan ere, 2018ko *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk* liburuan plazaratu du berriro testua). Nire ustez aparteko azterketa da 78ko erregimenaren muturreko zentro liberala miatzerakoan. Barnetik monarkiak batzen du Espainiako erregimena; kanpotik, ordea, Europar Batasunak, Ibox burtsak eta banketxeek zedarritzen dute. Eta denok kontent: ezkerreko zentroa, eskuineko zentroa eta zentroko zentroa. Batasuna, zentrismoa, liberalismoa, nazioa, kapitala eta monarkia bat datoz erregimen horretan. Nazionalismoa eta kapitalismoa elkarrekin daude, amalgamatuta, naturaltasun osoz. Nazioa eta kapitala bat datoz politika berean. Hor datza gakoa, hor daukagu horren indarra. Kapitalarekin uztarturik daukagu nazio hegemonikoa.

Kapitalismo berantiarraren lainoetan

Kapitalismoaren demokrazia liberaletan inperatibo hegemonikoak inposatzen dira, hala herrian, nola nazioan. «Zer da euskalduna? Zer da nazioa?», itauntzen du Azurmendik (2017: 70). Bere aburuz, ez dago erantzun bakunik nazioa formulatzerakoan, Sarrionandiaren proposamena kuestionatuz:

Deskribapen tradizionala Stalinen formulazio ezagunekoa da, austro-marxismoarena baino ez dena, erreferentzia konkretuak, ‘objektiboak’, aipatuz (hizkuntza, lurraldea, ekonomia, tradizio kultural amankomunak, historia), neuri oraindik ere bera begitantzen baitzait baliagarriena. Hurbilketa formal soilak hobets litezke, edukiak oro alboratuz: «nazioa nahia da»; edo «Nazioa zer da funtsean? Komunikazio espazio bat...» (J. Sarrionandia). Honela, objektzio pila bat ekiditen da. [...] Kontzeptu hain orokor abstraktuak baditu abantaila batzuk, Sarrionandiak seinalatzen ditu, h. d., alderdi positibo dinamikoa nabarmentzen du errealitate nazional linguistiko, kultural, politikoan. Baina estatua eta nazioa bereizteko, adibidez, ez digu balio. (*Ibid.*: 70-71)

Azurmendi ez dator bat Sarrionandiarekin auzi horretan. Nazioa eta komunikazio esparrua ez dira gauza bera, zegamarraren ustez (izan ere, JAKIN aldizkarian Sarrionandiar buruz karrikaratutako artikulu batean argudio bera garatu zuen Azurmendik 2015ean). Kapitalismo berantiarraren garaian, hizkuntza ez da nahikoa estatu berri bat eratzerakoan. Stalin gazteak ongi aurreikusi zuen. Stalinen nazioa ez da austro-marxismoarena, Azurmendiren eleen aurka, nahiz eta hizkuntza, lurraldea, ekonomia, kultura, psikologia eta historia aipatu. *Marxismoa eta nazio-auzia* lanean, Otto Bauer eta Karl Renner bezalako buruzagi sozialdemokrata austriarren «autonomia kultural-nazionala» kritikatu zuen (Stalin 2016: 46-47): klase guztiez osatutako komunitate nazionalaren artifizioa eta eskubide kulturalak ez dira nahikoa kapitalismoaren fase gorenetan, alegia.

Orain gogora ditzagun 1968ko *Manifestu atzeratua* poeman Azurmendik idatzitako bertsoak, non euskal historia agerian uzten duen, pobrea, pirata gutxirekin eta langile askorekin:

Gure herriak ez dauka kondairarik.
 Pobrea da. Ez dauka
 pirata koxkor pare bat
 langile sofritu batzuk,
 muga zentzugabe asko,
 mila zorigaizto
 besterik. Ez da gutxi.
 Euri gortina batek ixten du
 gure kalendarioa.
 Ez da bilatu historia unibertsalen
 liburu handietan gure inperiorik.

Aginako zero bat zen
 gure inperio guztia.

Ta euskalduna konforme zegoen.
 Ta libre izan nahi zuen.
 Baina libre izatea
 gauza ikaragarri zaila da
 Marx bat
 edo 1789 bat izan ez duen
 herri zorigaiztokoarentzat.
 Zerekin pagatu behar du?

Egungo kapitalismoaren aurrean, zein da justiziaren egarri unibertsala hemen eta orain euskaldunen artean? Zein da aberria baldintza horiekin? Eta zer herria? 1961ean Azurmendi zuzendutako gutun batean, Gabriel Aresti idazleak konfesatu zion «euskaldun abertzalea» zela, «hautatu ez dudana aberri gutti» batean, «tristurazko» aberri batean (Aresti 1986: 149). Bost urte beranduago, 1966an Hernanin emandako 'Euskeraren izen poetikoak' izenburuko hitzaldian, benetako herria deskribatu eta herri mitifikatua kritikatu zuen Arestik:

Askotan enzun dut: herria denok gara, zu eta biok, etxeko atezaiak, dendaria, alkate jauna, albaitari jauna, botikario jauna, mediko jauna eta apaiz jauna; albaitariaren andrea, botikarioaren andrea, medikuaren andrea eta apaizaren... ez, baina ez, apaizek ez dute andrerik.

Baina ez da hala. Kristok bere pobreen artean bildu zuen bere herria. Gogora ekar zazue: «zuen ondasun eta ahaide guztiak uc eta jarrai zakizkidade».

Kristau-herria pobreak gara. Zerua goian eta lurra behean gaudenok. Gurecat eskribitu zuen Marxek bere «Das Kapital». Gurecat egiten dira munduko gerra santu guztiak: Urrileko erreboluzioa, Kubakoa, Arjeliakoa, Vietnameko gerra; eta orain, Amerikako belzek, Indochinako herri sufrituaren anaiak direla konturaturik, hasi berri dutena. (*Ibid.*: 89)

Bat nator Gabriel Arestirekin harrizko herri honetan behelaino artean.

Bibliografia

- Aresti, Gabriel (1986): *Gabriel Arestiren literatur lanak, 10. Artikulua. Hitzaldiak. Gutunak*, Donostia, Susa.
- Azurmendi, Joxe (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.
- (2000): *XX. mendeko poesia kaierak. Joxe Azurmendi*, Donostia, Susa.
- (2014): *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*, Donostia, Elkar.
- (2015): 'Sarrionandia: nazioaren kontzeptua behelaino artean', *JAKIN* 207, 11-65.
- (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.
- (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Donostia, Elkar.
- Bessis, Sophie (2017): *Gerrak, bortxa eta giza eskubideak*, Donostia, San Telmo Museoa & Alkibla.
- Marx, Karl (2004): *Idazlan hautatuak*, Bilbo, Klasikoak.
- Sarrionandia, Joseba (1997): *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta.
- (2010): *Moroak gara behelaino artean?*, Iruñea, Pamiela.
- (2015): *Lapur banden etika ala politika*, Iruñea, Pamiela.
- (2019): *Airea ez da debalde*, Iruñea, Pamiela.
- Stalin, Iosif (2016): *Marxismoa eta nazio-auzia*, Iruñea, Iraultza Garaia.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
 Gudarien etorbidea, 29
 20140 ANDOAIN
 943 21 80 92
 jakin@jakin.eus
 www.jakin.eus